


“Adinkeria zabalduago dago sexismoa eta arrazakeria baino”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Borja Doncel García

Erizaina



Borja Doncel García

Erandio, 1992.

- **Eritzaintza** ikasi zuen EHU.
- Gero, **Zahartze Osasuntsua eta Bizi-Kalitatea masterra eta Ikerketa Biomedikoa Dokto-regoa** egin zituen unibertsitate berean.
- Erizaina da Errekaldeko Osasun Zentroan (Osakidetza – OSI Bilbao-Basurto), **adinkeria ikertzen du** AgeingOn EHUko ikerketa-taldean eta Biocrucesen (Osakidetza).
- **Irakaslea** ere bada EHU.

Borja Doncel García erizaina, ikertzailea eta irakaslea da. Oraindik ere, adimen artizialeko itzultzaile gehienek *erizaina* femeninoan itzultzen dute, adibidez, gaztelaniara: *la enfermera*. Doncelek argi utzi du erizaintzan eta Osakidetzan emakumezkoak gehiengo direla. Horrek, ordea, ez zuen ikasketak aukeratzeko garaian: “Batetik, osasun-arloa gustuko nuen, eta, bestetik, erizainok pazientearekin harreman estua izaten dugu, eta hurbiltasun hori asko gustatzen zait. Horregatik aukeratu nuen erizaintza”.

Estereotipoei uko egin zien beraz, eta, hain zuzen, estereotipoak ikertu ditu erizaintzan; zehazki, adinkeria edo adinekoek pairatzen duten diskriminazioa. “Zahartze Osasuntsua eta Bizi Kalitatearen masterra egin nuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta amaierako lanerako adinkeria aukeratu nuen, baita bere doktorego-tesian ere, azken urteotan sexismoak eta arrazakeriak arreta jasotzen ari direlako, baina adinkeriari, aldiz, ez zaiolako hainbeste erreparatzen”, azaldu du Doncelek. Adinagatiko diskriminazio hori gutxiago aipatzen den arren, sexismoa eta arrazakeria baino are ohikoagoa dela ere nabarmendu du Doncelek.

Horrez gain, aipatu du oso txikitatik ikasten dela adinkeria. “Testu batzuek esaten dute jada 5 urterekin hasten garela ikasten horrelako jarrerak, eta, adinean aurrera joan ahala, indartzen doaz. Horregatik, uste dugu oso garrantzitsua dela neurriak hartzea eta esku-hartzeak egitea, eskolatik eta etxetik hasita”.

Hala ere, adinkeriaren aurkako esku-hartze gehienak hezkuntzan oinarrituta daudela ikusi dute, baita belaunaldien artekoak ere, normalean nerabeekin. Eta horietan ere adinkeriaren adibide garbia ikusi dute, gazteei zuzenduta egoten direlako, eta ez adinekoei. “Pixka bat ironikoa da: adinkeriari aurre egiteko esku-hartzeetan, adinekoak baztertzan ditugu”, ohartarazi du Doncelek. Hori dela eta, haiek egin zuten esku-hartzea adinekoentzat izan zen.

Azkenaldian, dena den, komunikabideetan, hezkuntzan eta esku-hartzeetan gero eta gehiago hartzen da kontuan adinkeria. Izan ere, ondorio oso kaltegarriak ditu adin nagusiko pertsonetan: osasunean, isolatze sozialean, autonomian... Horrek guztiak, gainera, kostu bat dakar.

Aitortu du osasun-profesionalek ere izaten dituztela aurreiritziak adinekoen kontra, baina adinekoek ere badute eskubidea arreta ona jasotzeko. “Azkenean, denok iritsi nahi dugu zahar izatera”.